



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko azaroaren 20an

89 ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, piskanaka, eredu elebidunak ezar ditzan, irakaskuntza frantsesez, ingelesez edo alemanez emateko, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Parlamentu honek adierazten du ez duela nahi Bardeetan kokaturiko Tiro Poligonoa errentatzeko kontratua luzatzerik, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (3. or.).
- Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko segurtasuna eta osasunari buruz eta laneko arriskuen prebentzioari buruz zenbait neurri har dezan. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Iratxeko museo etnologikoan fonoteka ez jartzeko arrazoiei buruzko galdera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak egina (5. or.).
- Eskualde mistoko errepideetako panelei buruzko galdera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak egina (5. or.).
- Pertsona seropositiboen edo GIB-Hiesarekin bizi direnen erregistro nominalik egin ote den itauntzen duen galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (6. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1998ko otsailean bidali dituen Erabaki, Agindu eta Ebazpenen bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena (7. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arau Emaileak:

- ETAk iragarritako su-etena dela-eta Nafarroako Gobernuak bidalitako komunikazioari buruzko Erabakia (31. or.).

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, piskanaka, eredu elebidunak ezar ditzan, irakaskuntza frantsesez, ingelesez edo alemanez emateko

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, piskanaka, eredu elebidunak ezar ditzan, irakaskuntza frantsesez, ingelesez edo alemanez emateko”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatua eta bozkatua izan dadin:

Etorkizuneko hezkuntzak duen erronka hauxe da: gure gazteei prestakuntza ematea gero eta globalizatuago, inguruari irekiago dagoen mundu batean integratu ahal izan daitezen. Horretarako, prestakuntza izan beharko dute gaztelaniazko eta ingeles/frantses/alemanezko adierazpide eta komunikazioa menperatzeko.

Sozialistok gure gazteak etorkizunerako trebatzeko lanabes erabilgarritzat jotzen dugu irakaskuntza publikoa, eta horrexegatik bideratu ditugu geure ahaleginak irakaskuntza publikoa hobetzerantz. Azken urteotan, hori lortu egin da. Ildo

horretatik, ezinbestekotzat jotzen dugu datorren mendeko beharrezko irakaskuntza egokitzea, hau da, ingelesezko eta frantsesezko irakaskuntza zabaltzea. Horretarako, hizkuntza irakatsi beharrean, hizkuntza horretan bertan irakatsi behar da, agerian geratu baita horrela lorturiko emaitzak gazteak etorkizunean izango dituen beharrezko aurre egiteko egokiagoak direla.

Alde batera utziz atzerriko egonaldiak edo eskolaz kanpoko klaseak, familien ahalmen ekonomikoari lotuak daudenez gero, botere publikoak irakaskuntza publikotik beharrezko berriei erantzuteko ardurak daukagu; horregatik, Parlamentari Talde honen ustez beharrezkoa da ingeles, frantses zein alemanezko aukera elebidunak abiaraztea. Horrek eskatuko du irakasleak birziklatu/trebatzea eta prestakuntza-bitartekoak egokitzea; hori guztia hiru urteren buruan egin beharko da. Horretarako, hurrengo Aurrekontuetan beharrezkoak diren aurrekontu-fondoak aurreikusitako beharko dira. Aurrekontuak pairatuko duten kostua handia izanik ere, Nafarroak gaur egun horretarako ahalmena baduela uste dugu.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du piskanaka, arian-arian eta behar adinako sendotasunez, gehienez ere hiru urteko epean, ikastetxe publikoetan, eredu elebidunak ezar ditzan, horietan irakaskuntza frantsesez, ingelesez edo alemanez eskain dakien hala eskatzen duten ikasleei.

Helburu horrekin, 1999/2000 ikasterterako, Nafarroako Gobernuak ekintzak abiaraziko ditu dagoen eskariari erantzun ahal izatea bermatzeko edo, gutxienez, Iruña eta Iruñerrian eta Nafarroaren gainontzekoan eskaintza egokia dagoela bermatzeko.

Iruñean, 1998ko azaroaren 5ean

Bozeramailea: Carlos Cristóbal García

Mozioa. Horren bidez, Parlamentu honek adierazten du ez duela nahi Bardeetan kokaturiko Tiro Poligonoa errentatzeko kontratua luzatzerik

PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Parlamentu honek adierazten du ez duela nahi Bardeetan kokaturiko Tiro Poligonoa errentatzeko kontratua luzatzerik".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Pedro Romeo Lizarraga, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatua eta bozkatua izan dadin:

Nafarroako gizarteak askotan adierazi du Bardeetan kokaturiko tiro-poligonoa gaitzesten duela, eta desegin dadin eta ingurua (22.000 erregu) helburu militarretarako ez dadila berriro erabil nahi duela.

Herriaren oihu horri babesa eman diote Bardeetako Batzarrak eta Parlamentu honek berak: behin eta berriro, borondate hori adierazi dute, Poligonoa desegitearen aldeko jarrera hartuz.

Baina, horren aurka, beste ariketa militar batzuk egitera doaz. Horiek kalte gehiago ekarriko dizkiete inguru horretako biztanleei, eta, gainera, Espainiar Armadaren zapalkuntzaren eta Nafarroako Herriaren borondatearekiko duen mespretxuaren agerpenik argiena dira.

Horregatik, honako erabaki-proposamen hau onesten da:

1.- Parlamentu honek adierazten du ez duela nahi Bardeetan kokaturiko Tiro Poligonoa errentatzeko Espainiako Armadarekin sinaturiko kontratua luzatzerik, eta instalazio militar horiek desegitearen alde dagoela.

Iruñean, 1998ko azaroaren 9an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko segurtasuna eta osasunari buruz eta laneko arriskuen prebentzioari buruz zenbait neurri har dezan

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak 1998ko azaroaren 3an eginiko bilkuran ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko segurtasuna eta osasunari buruz eta laneko arriskuen prebentzioari buruz zenbait neurri har dezan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko segurtasuna eta osasunari buruz eta laneko arriskuen prebentzioari buruz zenbait neurri har dezan

1.- Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak hurrengo zereginak modu eraginkorrean bete ahal izan ditzan, hots, Nafarroako Lan Osasunaren Institutua (NLOI) sortu zuen 335/1992 Foru Dekretuaren 4. artikuluko 2 eta 3 idazatiek aurrekusi dituzten lan osasunari dagokionean lan baldintzei buruz indarra duten legeak betetzen ote diren jarraitzea eta zuzeneko laguntza ematea Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza Zerbitzuari eta Nafarroako Gobernuko Lan Zuzendaritza Nagusiari, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bi hilabeteko epean bidal dezan laneko segurtasunari eta osasunari buruz indarra duten legeak betetzen ote diren jarraitzeko eta kontrolatzeko plana, ordezkariak duten gizarte-eragileekin lankidetzan prestatua eta, gutxienez, hurrengo edukiak izanen dituena:

1.1. NLOIk garatu behar dituen jarduera horiek, hots ikuskaritzari laguntza ematea eta informazioa, urtero zenbatestea eta burutu behar

diren jarduketak eta iritsi behar diren helburuak zehaztea, eskualdeka eta sektoreka.

1.2. Ikuskaritzari laguntza emateko eta informatzeko zereginetan erabili behar diren giza- eta gauza-baliabideak deskribatzea; zelaiko lanean arituko diren lantaldeen zenbatekoa eta haien lanmetodo orokorrak zehaztea.

1.3. Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza Zerbitzuekin eta Nafarroako Gobernuko Lan Zuzendaritza Nagusiarekin koordinazioan eta lankidetzan aritzeko bideak.

1.4. Jarduketa berezi eta lehentasunezkoak garatzea, istripuei buruzko parametro eta estatistiken arabera arriskutsutzat jotako sektoreetan.

1.5. Jarduketa berezi eta lehentasunezkoak garatzea aldi baterako laneko enpresetan, enpresa horiek langileei zor dieten prestakuntza-betebarra egoki betetzen dela bermatzearen.

1.6. Helburuak eta jarduketak urtero aztertzeko prozedura.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prebentzio ordezkarien prestakuntza plana gara dezan, ordezkariak duten gizarte eragileekin lankidetzan eta sektore-arteko ekainaren 1995eko Akordioa garatuz. Urta-rrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak aurreikusitako prestakuntza-programen erdi eta goi mailak hartuko lituzke plan horrek. Prebentzio ordezkarien erregistro ofiziala irekiko du NLOIk horretarako.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazio-prozedura antola dezan, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 47 eta 48. artikuluen arabera laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan ezarri diren zehapen larri eta oso larrien berri emateko gizarte-eragileei.

F saila:
GALDERAK

Iratxeko museo etnologikoan fonoteka ez jartzeko arrazoiei buruzko galdera

PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak Iratxeko museo etnologikoan fonoteka ez jartzeko arrazoiei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Pedro Romeo Lizarraga, Ezker Abertzaleari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1.-Zeintzuk dira Iratxeko museo etnologikoa izanen den horretan, fonoteka ez jartzeko arrazoiak?

Iruñean, 1998ko azaroaren 2an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

Eskualde mistoko errepideetako panelei buruzko galdera

PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak eskualde mistoko errepideetako panelei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Pedro Romeo Lizarraga, Ezker Abertzaleari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1.- Zergatik eskualde mistoko errepideetako panel berriek ez dute araudia betetzen; hau da, zergatik ez daramate euskarazko testurik?

Iruñean, 1998ko azaroaren 2an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

Pertsona seropositiboen edo GIB-Hiesarekin bizi direnen erregistro nominalik egin ote den itauntzen duen galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak pertsona seropositiboen edo GIB-Hiesarekin bizi direnen erregistro nominalik egin ote den itauntzen duen galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Isabel Arbonies Bermejo, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

IU taldeak, Diputatuen Kongresuan, galdera egin zion Osasun Ministerioari, hiesa zuten gaixoen izen erregistro publikoa egiteko asmoa al zuen. Irailaren 9an emaniko erantzunean, Ministerioak esan zuen gogoeta egiten ari zela nazioarteko erakundeekin batera eta baita zenbait autonomia erkidegotako adituekin, GIBak eragindako infekzio berriak zaintzeko sistema bat ezartzeko.

Beranduago, egunkarietan azaldutako iritziren baten arabera, Osasun eta Kontsumo Ministerioak zirriborro batean prest omen zituen GIB-hiesarekin bizi direnen balizko erregistro baten alde on eta txarrak; erregistro horretan kaltetutakoen izen eta datu pertsonalak agertuko lirateke. Dirudieenez, erregistro mota hori egin da, jadanik, Asturias, Errioxa eta Nafarroan.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1) Egin al da Nafarroan, pertsona seropositiboen edo GIB-hiesarekin bizi direnen izenen erregistrorik?

2) Erregistro hori edo beste edozein, edo pertsona seropositibo edo GIB-hiesak kaltetutakoen datu pertsonalen datu-tratamendu automatizaturik egin bada, kaltetutakoen ezaguera eta baimenarekin egin al da?

3) Pertsona seropositiboen eta hiesa dutenen datu pertsonalen erregistrorik egin bada, zein prozedura erabili da datuen eta osasun kontrolak egiten dituzten pertsonen nortasunaren isilpekotasuna bermatzeko?

Iruñean, 1998ko azaroaren 5ean

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1998ko otsailean bidali dituen Erabaki, Agindu eta Ebazpenen bitartez gauzaturako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarari txostena eskatzea 1998ko otsailean Nafarroko Parlamentura bidali ziren Erabaki, Agindu eta Ebazpenen bidez gauzaturako aurrekontu-aldaketen legezotasunari buruz.

Era berean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 3an egindako bilkuran, hauxe erabaki zuen: Kontuen Ganbarak aipatu Erabaki, Agindu eta Ebazpenei buruz emandako txostenaren edukiaz jabetu dela adieraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko apirilaren 6an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

“814/1997 EBAZPENA, abenduaren 1ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu sortuzaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak egindako eskaria, “Energiaren kogenerazio instalazioaren mantenimendua. Kontratua SINAERekin” kontusailiko 17940-0 lerroan kreditua gehitzeko. Zenbatekoa: 6.402.155 pezeta. “Iberdrolari energia hornitzea. Energiaren kogenerazio instalazioa” kontusailiko 36780-8 lerroan izandako dirusarrera handiagoen kargura finantzatu da.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluko 1. puntuko a) letraren arabera, izan ere hor ezartzen baita Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria dela eskudun aurrekontu aldaketa horiek baimentzeko. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskualdatu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- Kreditua sortzea 1997rako indarreko Aurrekontuan ondoko kontusailaren kargura: “Energiaren kogenerazio instalazioaren mantenimendua. Kontratua SINAERekin” 52230-2280-4121, proiektua, 41001; lerroa, 17940-0; izena, Zenbatekoa: 6.402.155 pezeta. “Iberdrolari energia hornitzea. Energiaren kogenerazio instalazioa” kontusailiko 36780-8 lerroan izandako dirusarrera handiagoen kargura finantzatu da.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Osasun Departamentura (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzaitetza Delegatura.

Iruñean, 1997ko abenduaren 1ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“815/1997 EBAZPENA, abenduaren 1ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Gizarte Ongizatearen Institutuak kreditu-transferentzia eskatu du ondoko kontusailletara: “Itunak elkarrekin, funtzionamendurako” kontusaila; lerroa, 32840-6; zenbatekoa, 4.500.000 pezeta; “Elkarrekin funtzionamendurako dirulaguntzak” kontusaila; lerroa, 32850-3; zenbatekoa, 25.000.000 pezeta; “Gizarteratze neurri loturiko pertonekin egindako proiektuak eta lantegiak” kontusaila; lerroa, 32830-9; zenbatekoa, 7.500.000 pezeta. Ondoko kontusailen kargura finantzatu dira: “Familientzako prestazio ekonomikoak”; lerroa, 32020-0; zenbatekoa, 6.500.000 pezeta; “Elkarte eta entitateekiko itunak”; lerroa, 31970-9; zenbatekoa, 12.800.000 pezeta; “Kuotak kanpoko zentroetan diren haurrengatik”; lerroa, 32040-5; zenbatekoa, 16.700.000 pezeta; “Lagun-

tzak gutxituek turismo eta oporraldi programetan sartzeko"; lerroa, 32610-1; zenbatekoa, 1.000.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 47. artikulua ezarritakoari jarraituz, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak kapitulu ekonomiko bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzake, Departamentu bereko programa ezberdinetakoak izanik aipatu programen helburuak aldatzen ez badira. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskualdatu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1997ko indarreko aurrekontuan kreditu-transferentzia ondoko kontusailera:

Kodeak	Kontzeptua	Zenbatekoa
93200-4810-3137, proiektua 24002, lerroa 32840-6	Itunak elkarrekin funtzionamendurako	4.500.000
93200-4810-3137, proiektua 24002, lerroa 32850-3	Elkarleen funtzionamendurako dirulaguntzak	25.000.000
93200-4809-3137, proiektua 24002, lerroa 32830-9	Gizarteratze neurri loturiko pertsonekin egindako proiektuak eta lantegiak	7.500.000

Ondoko kontusailen kargura:

Kodeak	Kontzeptua	Zenbatekoa
93200-4809-3131, proiektua 21002, lerroa 32020-0	Familientzako prestazio ekonomikoak	6.500.000
93100-4810-3131, proiektua 21002, lerroa 31970-9	Elkarte eta entitateekiko itunak	12.800.000
93200-4810-3131, proiektua 21002, lerroa 32040-5	Kuotak kanpoko zentroetan diren haurrengatik	16.700.000
93200-4809-3135, proiektua 23002, lerroa 32610-1	Laguntzak gutxituek turismo eta oporraldi programetan sartzeko	1.000.000

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Gizarte Ongizate Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailera Delegatutara.

Iruñean, 1997 abenduaren 1ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"816/1997 EBAZPENA, abenduaren 1ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, 1997ko indarreko gastuen aurrekontuan kreditu-birjarpena baimentzen duena.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak kreditu-birjarpena eskatu du ondoko kontusailera: "Ikerketa eta lan teknikoak"; lerroa, 11110-5; zenbatekoa, 343.899 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 51. artikulua ezarritakoaren arabera, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak eskumena du aurrekontu-kredituen birjarpena agintzeko, baldin eta, aipatu aurrekontu-kredituen kontura behar ez bezalako ordainketak egin ondoren, ordainketa horiek itzultzetik heldu diren dirusarrerak izan badira. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskualdatu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1997rako indarra duen Aurrekontuan kreditu birjartzea ondoko kontusailera: 30000 proiektuko "Ikerketa eta lan teknikoak" 31100-2276-4421 kontusailera; lerroa, 11110-5; zenbatekoa, 343.899 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura (Idazkari-tza Teknikoa), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailera Delegatutara.

Iruñean, 1997 abenduaren 1ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"817/1997 EBAZPENA, abenduaren 2koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-sorkuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ondoko kontusailera kreditu sortzeko egin duen eskaria: "Entseu klinikoak"; lerroa, 17885-4; zenbatekoa, 494.781 pezeta; "Entseu klinikoetarako transferentziak" kontusailera 36785-9 lerroan izandako dirusarrera handiagoen kargura.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 50. artikulua ezarritakoaren arabera, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru

Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1997rako indarreko aurrekontuan kreditu-sorkuntza egitea gastuen aurrekontuko kontusail honetan: "Entseiu klinikoak" 52230-2269-4121 kontusaila; proiektua, 41001; lerroa, 17885-4; zenbatekoa, 494.781 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kargura finantzatu da: "Entseiu klinikoetarako transferentziak" 52230-4700 kontusaila; proiektua, 41001; lerroa, 36785-9; ; zenbatekoa, lehengo bera.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Osasun Departamentura (Osasun-bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1997ko abenduaren 2an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"823/1997 EBAZPENA, abenduaren 9koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Teknikoak kreditu-transferentzia eskatu du "Bestelako altzari eta ekipoak" izeneko gastuen aurrekontuko kontusaileko 05770-4 lerrotik "Argitalpen fondoak erostea" kontusaileko 05780-1 lerroa; zenbatekoa: lehengo bera.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46.2. artikulua ezarritakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak kontseilariak programa bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzake, aipatu programen helburuak aldatzen ez badira. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskualdatu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1997rako indarrean dagoen gastuen aurrekontuan kreditu-transferentzia egitea kontusail honetatik: "Bestelako altzari eta ekipoak" 10100-6059-6113 kontusaila; proiektua, 00000; lerroa, 05770-4; zenbatekoa, 350.000 pezeta; "Argitalpen fondoak erostea" 10100-6081-6113 kontusaila; proiektua, 00000; lerroa, 05780-1; zenbatekoa: lehengo bera.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Idazkaritza Teknikoa), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1997 abenduaren 9an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"825/1997 EBAZPENA, abenduaren 10ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kanpo Ekintza eta Ordezkaritza Instituzionalaren Zerbitzuak eskaria egin du ondoko kontusailean kreditu-gehikuntza egiteko: "INTERREG II, LEADER II, NOW II, YOUTHSTART I, HORIZON II eta beste ekintza batzuk"; lerroa, 07460-9; zenbatekoa, 46.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatu da: "INTERREG II, LEADER II, NOW II, YOUTHSTART I, HORIZON II eta beste ekintza batzuk" izen bateratua duen kontusailean (lerroa, 07470-6; zenbatekoa, 37.000.000 pezeta; eta lerroa, 07400-5; zenbatekoa, 9.000.000 pezeta).

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 2. puntuko b) hizkiak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikulua ezarritakoarekin bat, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1997rako indarrean dagoen gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: "INTERREG II, LEADER II, NOW II, YOUTHSTART I, HORIZON II eta beste ekintza batzuk" 11610-7600-1341 kontusaila; proiektua, 16001; lerroa, 07460-9; zenbatekoa, 46.000.000 pezeta. Ondokoetan baliagarri dauden kredituen kontura finantzatu da: "INTERREG II, LEADER II, NOW II, YOUTHSTART I, HORIZON II eta beste ekintza batzuk" 11610-7810-1341 kontusaila (proiektua, 16001; lerroa, 07470-6; zenbatekoa, 37.000.000 pezeta), eta "INTERREG II, LEADER II, NOW II, YOUTHSTART I, HORIZON II eta beste batzuk" 11610-4600-1341 kontusaila (proiektua, 16001; lerroa, 07400-5; zenbatekoa 9.500.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Kanpo Ekintzarako Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1997 abenduaren 10ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**826/1997 EBAZPENA**, abenduaren 10ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-transferentzien bidezko aurrekontu-aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak egin duen eskaria kontusailen arteko kreditu-transferentziak egiteko ondoko kontusailletatik: “Industrialdeen Kudeaketa”; lerroa, 28880-3; zenbatekoa, 2.000.000 pezeta; “Auditoretzak, diagnostikoak eta ikastaroak”; lerroa, 29030-1; zenbatekoa, 16.500.000 pezeta; “Energi diagnostikoak ostatu eta zerbitzuen sektorean”; lerroa, 29040-9; zenbatekoa, 4.137.663 pezeta; “Nafarroako artisautza sustatzeko ekintzak”; lerroa, 29730-6; zenbatekoa, 329.000 pezeta; “Artisauak profesionalizatzea”; lerroa, 29740-3; zenbatekoa, 671.000 pezeta; “Kontsumitzaile eta erabiltzaileak defendatzeko jarduerak”; lerroa, 29850-7; zenbatekoa, 1.000.000 pezeta.

Ondoko kontusailera: SODENArekin ituna, sustapen eta laguntza teknikorako; lerroa, 29190-1; zenbatekoa, 24.637.663 pezeta; Nafarroak Leipzigeko Azokako pabilioian izandako antolamendu gastuak ordaintzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 47. artikulua ezarritakoari jarraituz, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak kapitulu ekonomiko bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzake, Departamentu bereko programa ezberdinetakoak izanik aipatu programen helburuak aldatzen ez badira. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskualdatu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1997ko indarreko gastuen aurrekontuan, ondoko kontusailen arteko kreditu-transferentzia egitea:

Kodeak	Kontzeptua	Zenbatekoa
81130-4600-5351, proiektua 10001, lerroa 28880-3	Industrialdeen Kudeaketa	2.000.000

81130-4701-7311,
proiektua 10003, Auditoretzak, diagnostikoak
lerroa 29030-1 eta ikastaroak 16.500.000

81130-4809-7311, Energi diagnostikoak
proiektua 10003, ostatu eta zerbitzuen
lerroa 29040-9 sektorean 4.137.663

82110-4709-7631,
proiektua 40004, Nafarroako artisautza
lerroa 29730-6 sustatzeko ekintzak 329.000

82110-4709-7631,
proiektua 40004, Artisauak
lerroa 29740-3 profesionalizatzea 671.000

82120-4600-4442, Kontsumitzaile eta
proiektua 41001, erabiltzaileak defendatzeko
lerroa 29850-7 jarduerak 1.000.000

Kontusail honetara:

81120-4400-7242, SODENArekin eginiko ituna
proiektua 30001, sustapen eta laguntza teknikoko
lerroa 29190-1, jarduerentzako 24.637.663

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1997ko abenduaren 10ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**831/1997 EBAZPENA**, abenduaren 10ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Toki Administrazioiko Departamentuak kreditugehikuntza eskatu du ondoko kontusailean: “Epaia betetzearen ondoriozko gastuak”; lerroa, 09365-4; zenbatekoa, 6.394.777 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kontura finantzatzeko da: “Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea”; lerroa, 34695-9.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 1 puntuak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikulua ezarritakoarekin bat, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1997ko indarreko gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: “Epaia betetzearen ondoriozko gastuak” 21400-7600-1240; proiektua, 00000; lerroa, 09365-4; zenbatekoa, 6.394.777 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kargura finantzatu da: 11400-8700; proiektua, 12000; lerroa, 34695-9; izena: “Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea”.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Toki Administrazio Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalera eta Departamentu horretan den Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1997ko abenduaren 10ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez”

“**844/1997 EBAZPENA**, abenduaren 12koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kreditu-gehikuntza eskatu du gastuen aurrekontuko ondoko kontusailean: “FEOGA-Bermea laguntzak. Finantza-zuzenketak”; lerroa, 27735-6; zenbatekoa, 1.475.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kargura finantzatu da: Nekazari eta abeltzaintzako prestakuntza ikastaroak; lerroa, 27620-1; zenbatekoa, lehengo bera.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 2. puntuko a) hizkiak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko ezarritakoarekin bat, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1997rako indarrean dagoen gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: 71520-4700-5313; proiektua, 40002; izena: “FEOGA laguntzak -Bermea. Finantza zuzenketak”; lerroa, 27735-6; zenbatekoa, 1.475.000 pezeta; gastuen aurrekontuko ondoko kontusaileko kreditu baliagarriekin finantzatu da: “Nekazari eta abeltzaintzako prestakuntza ikastaroak” 71500-2266-5313 kontusaila; proiektua, 40001; lerroa, 27620-1; zenbatekoa, lehengo bera.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1997ko abenduaren 12an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez”

“**845/1997 EBAZPENA**, abenduaren 12koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kreditu-gehikuntza eskatu du gastuen aurrekontuko ondoko kontusailean: “Nekazaritza ustiatzearen eraginkortasuna hobetzea (FEOGA-O)”; lerroa, 97068-0; zenbatekoa, 17.310.000 pezeta. Ondoko kontusailetan baliagarri dauden kredituen kargura finantzatu da:

- “Nekazaritza Politika Komunaren erreforma. Ingurugiro programak; suntsipen bidean diren arrazak”; lerroa, 97069-8; zenbatekoa, 310.000 pezeta.

- “Mendialde eta alde behartsuetarako konpentsazio ordaina” kontusaila; lerroa, 27710-0; zenbatekoa, 10.000.000 pezeta.

- “Lehortzearen eragina arintzeko neurriak.14/94 Foru Legea” kontusaila; lerroa, 27350-4; zenbatekoa, 7.000.000 pezeta.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 7. puntuko d) idaztiak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko ezarritakoarekin bat, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1997rako indarrean dagoen gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: “Nekazaritza ustiatzearen eraginkortasuna hobetzea (FEOGA-O)” 71510-7700-5313 kontusaila; proiektua, 40001; lerroa, 97068-0; zenbatekoa, 17.310.000 pezeta. Ondoko gastuen kontusailetan baliagarri dauden kredituekin finantzatu dira:

- “Nekazaritza Politika Komunaren erreforma. Ingurugiro programak; suntsipen bidean diren arrazak” 71520-4700-5313 kontusaila; proiektua,

40002; lerroa, 97069-8; zenbatekoa, 310.000 pezeta.

- “Mendialde eta alde behartsuetarako konpentsazio ordaina” 71520-4700-5313 kontusaila; proiektua, 40002; lerroa, 27710-0; zenbatekoa, 10.000.000 pezeta.

- “Lehortearen eragina arintzeko neurriak. 14/94 Foru Legea” 71510-4700-7161 kontusaila; proiektua, 30000; lerroa, 27350-4; zenbatekoa, 7.000.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1997ko abenduaren 12an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**851/1997 EBAZPENA**, abenduaren 15ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Teknikoak, kreditu-transferentzia eskatu du “Bestelako altzari eta ekipoak” kontusaileko 05770-4 lerrotik “Aparteko orduak” kontusaileko 05710-0 lerroa; zenbatekoa, 100.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46.2. artikulua ezarritakoaren arabera, Nafarroako Gobernuo kontseilariak programa bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzake, aipatu programen helburuak aldatzen ez badira. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskualdatu dizkidan erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1997rako indarrean dagoen gastuen aurrekontuan kreditu-transferentzia egitea: 00000 proiektuko “Bestelako altzari eta ekipoak” 10100-6059-6113 kontusaileko 05770-4 lerrotik 00000 proiektuko “Aparteko orduak” 10100-1702-6113 kontusaileko 05710-0 lerroa; zenbatekoa: 100.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Idazkaritza Teknikoa), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1997ko abenduaren 15ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**852/1997 EBAZPENA**, abenduaren 15ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-sorkuntzaren bidezko aurrekontu aldaketarako baimena ematen duena.

Ikusirik Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak kreditu-sorkuntza eskatu du eta ondoko kontusailean: “Lurzorua eta etxebizitza erosi eta sustatzea”; lerroa, 93002-5; zenbatekoa, 138.250.099 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoe kin finantzatuko da: “Lurzorua, etxebizitzak eta eraikinak saltzea”; lerroa, 35800-0.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1997ko indarreko gastuen aurrekontuan kreditua sortzea ondoko kontusailean: “Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzea” 32210-6000-4311 kontusaila; proiektua, 20000; lerroa, 93002-5; zenbatekoa, 138.250.099 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoe kin finantzatuko da: “Lurzorua, etxebizitzak eta eraikinak saltzea” 32200-6100 kontusaila; proiektua, 20000; lerroa, 35800-0;”.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura (Etxebizitza Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1997ko abenduaren 15ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“**855/1997 EBAZPENA**, abenduaren 15ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

